

Pantxike Elordui Uriarte Pantxi
Loiu, Bizkaia (1925)

Aurkibidea

Biografia

Loiuko Zamarripa auzoan jaio zen 1925ean. Aita Sondikako lñerratza auzokoa zen eta ama Loiu bertakoa. Zamarripa baserrian jaio eta bizi izan da beti eta sei neba-arrebatatik gazteena izan zen. Eskolara bakarrik bi urtez joan zen arren, bere maistra izan zen [Polixene Trabudua](#)ren oroitzapen oso onak zeuzkan. Bederatzi urte zituela, amak eskolatik atera zuen berarekin Bilboko merkatu-plazan bendeja saltzen laguntzeko eta horretan ibili zen ezkondu zen arte. Asuko domeketako erromerian ezagutu zuen gizona eta 27 urte zituela berarekin ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituzten. Gizonak 51 urte zituela, alargun geratu zen, baina etxekoen laguntzarekin aurrera egitea lortu zuen.

Zintak

LOI-005

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2013-05-13

- **Iraupena:** 36 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Bilbao Telletxea, Arantza

LOI-006

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2013-05-13
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Erriberako plazan saltzen zituen ortuariak

- **Erref:** LOI-005/003
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:05:30. **Bukatu:** 00:06:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Solo asko daukate etxe inguruan. Hantxe egiten zuen aita lan, eta bera plazara joaten zen bendeja (ortuariak) saltzera. Erriberako plazan, Bilbon, zuen postua. Auzoko baten furgonetan eramaten zituzten hainbat baserriarren ortuariak Bilbora.

2. Bilbora esnea edo ortuariak saltzera

- **Erref:** LOI-005/004
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:06:52. **Bukatu:** 00:08:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Etxean bost neska eta mutil bat izan ziren, bera gazteena. Ahizpa bat esnea saltzera joaten zen Bilbora. Beste ahizpa bat etxez etxe jostera. Bera amarekin hasi zen bendeja (ortuariak) saltzen, gero bakarrik.

3. Ametsetan piper-zakuak falta

- **Erref:** LOI-005/006
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:09:31. **Bukatu:** 00:11:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Hamalau-hamabost urterekin hasi zen plazara. Tomateak, piperrak, lekak, zerbak eta abar eramaten zituzten. Orain ere ametsetan egiten du garai hartako arazoekin.

4. Erriberako plazako postua

- **Erref:** LOI-005/008
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:13:12. **Bukatu:** 00:15:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Postu finkoa zuten Erriberako plazan. "Kargeroak" (zama goiko solairuetara igotzeko gizonak) egoten ziren itxaroten, eta haiek igotzen zuten saldu beharrekoa.

5. Sondikatik hurbil, baina Loiu da

- **Erref:** LOI-005/009
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:15:33. **Bukatu:** 00:17:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Ordu bata eta erdietan edo, itzultzen zen Bilbotik Asuara trenean, eta handik etxera. Zangroiz da Pantxikeren auzoa; euren etxea Loiuko udalekoa da. Hurbil dago Sondikako muga.

6. Santa Luzia, Loiuko jai handia

- **Erref:** LOI-005/010
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:17:38. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Santa Luzia zen Loiuko jai handia; San Pedro ere ospatzen zuten. San Juan, Sondikakoa. Gaztea zela, jende asko elkartzen zen jaietan, karrozak egoten ziren. Bera goizean azokara joaten zen, baina arratsaldean erromeriara. Orain dena etxez beteta dago, baina antzina landa bat zen jai gunea.

7. Dena salduta etxera

- **Erref:** LOI-005/011
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:20:20. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Bilboko plazara eramaten zuen guztia saltzen zuen. Hortik bizi ziren. Irabazitakoa aprobe txatu eta ez zegoenerako gorde behar zen.

8. Soineko zuria jaietarako

- **Erref:** LOI-005/012
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:23:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Asteguneko arropa eta jaietakoa ezberdinak ziren. Ahizpak egin zion jaietarako soinekoa. Prakarik ez zen janzten orduan. Plazara mantala eramaten zuten. Ez zuen buruko zapirik erabiltzen.

9. Sondikako Escuela Vascan ikasi zuen

- **Erref:** LOI-005/013
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:23:48. **Bukatu:** 00:28:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Gazte-gaztetan utzi zuen eskola, plazara hasteko. Zortzi urterekin hasi zen eskolara, eta hamaika egin barik atera zuen amak, azokara joateko berarekin. Sondikara, Escuela Vascara joaten ziren; Polixene Trabudua zen irakaslea eta euskaraz ikasten zuten. Nebak salaketak izan zituen; baina ahizpa esne-saltzaileek ezagutzen zituzten Bilboko militarrek, eta horien bitartez salbatu zuten neba.</p>

Transkripzioa

-Hortik jarraitu baiño ariñau, preguntau nahi dotsut ia eskola...

-Ai, eskolara! Eskolara ibili nintzen ni, baie, ia... gazte-gaztetik itxi nendun eskolea nik eta... Nire ahizte bai, hamalau urte, baie nik e, ordun e, hasi nintzen zeozer ikesten eta, atara ostien eskolatik eta... Nire amak e... plazara, beragaz. Bera hain zan, delikadie izen zan, eta koiteduk ba, bakizu.

-Asi ke, orduen, itxoin... Asi ke, orduen eskolara zenbat urtegaz sartu ziñen?

-Sartu, ba zortzi edo halan. Ta hamar, hamaka urtegaz ia, hamaka urte ein barik.

-Bueno, ba zeuzer bai ein ziñun, ez?

-Bueno, bai...

-Eta eskola nun zegoen hamen?

-Gu joaten gintzen Eskola Vascara, Sondikera. Polixene Trabudua.

-Ta zer zan hori, Eskola Vasca edo?

-Eskola Vasca, Polixene Trabudua, euskeraz.
 -Eta nun zegon?
 -Ba, Sondiken. Hori eskola izen zan, han, estaziñoan ondon; apurtxu bet alborau.
 -Eta nok hasi eban? Ze, hor epokan...euskeraz berba ein ahal zan?
 -Bai, baie badiñotsut, ni, ordun, ia gero ez, gero, obligau eiten zeurien. Euskera eiten [...] kartzelara. Bai. Eta nik galdu nendun euskerea asko horrexegaitik. Nire, nire... zelan esaten da? anaia... egon zan, ba, denuntzikaz eta holan, eta nire ahiztek eroaten zebien Bilbora esnea, ta militarrak, haiek, ezetu guri zelangok garizen eta harek salba, harekaz berbaz erderaz ta erderaz ta erderaz, ta gero..
 -Klaro, klaro. Ze zuk orduen eskolan euskeraz e?
 -Bai.
 -Eta maistrak eta maisuk eta...
 -Maistrea ixen zan hori, Polixene, Polixene Trabudua.
 -Ta ona zan?
 -Bai. Sondikeko ixen zan bera. Ona maistrea.
 -Ta ze akordu dekozu eskolakue?
 -Eskolakue? Ba lagunak euki ninduzen eta haulan...
 -Goizetan jungo ziñien, ezta? Edo...
 -Bai.
 -Ta hor egun guztidxe egoten ziñien edo ez, buelta etzera? Zelan eitten zenduen?
 -Ez. Arrastien, gero eguerdin etorri etzera, ta arrastien bardin.
 -Eta libruak eta?
 -Bai, bai. Badiñotsut nik [...] ia hasi nintzenen apurtxu bet ia zertzen ikesiteko, itxi.

10. Taben jolasa

- **Erref:** LOI-005/015
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:28:56. **Bukatu:** 00:32:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Tabetan jolasten zuten; etxeko artxoaren hezurak ziren tabak. Nola jolasten zuten azaltzen du. Auzoko lagunekin jolasten zuen. Kanikak ere izaten zituzten. Sokan ere saltatzen zuten.

11. Senarrak egiten zuen baratzeko lana

- **Erref:** LOI-005/017
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:32:37. **Bukatu:** 00:34:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gazte-gaztetan, hamalau-hamabost urterekin, hasi zen bakarrik Bilboko plazara joaten. Alargundu zenean, utzi zioten soloa lantzeari eta galdu zen soloko dena.

12. Dantzan ezagutu zuen senarra

- **Erref:** LOI-005/018
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:34:19. **Bukatu:** 00:35:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Sondikakoa izan zen senarra. Asuako dantzaldira joaten ziren domeketan. Han, balkoian bozgorailuak jarrita egiten zuten dantzan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com